

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Erakundea: Fundación Adinberri Fundazioa
Programa: 010 - Adinberri Fundazioa

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Adineko pertsonak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Zainketa egokiak jasotzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Zahartzearen eta osasunaren esparrua, zalantzarik gabe, generoaren aldagaiari eragiten dion jarduera-eremua da. Hainbat ikerketaren arabera, estresa, pobrezia/gizarte-bazterketa, adina/egoera zibila, lan-baldintzak, familia-kargak, kulturarako eta hezkuntzarako sarbiderik eza, botererik eza, indarkeria/botere-harremanak dira emakumeen zahartze osasuntsuan, ongizatean eta osasunean eragiten duten faktoreak.

Euskadin bizi diren emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea, besteak beste, prestakuntza-mailan, jardueratan eta diru-sarrera ekonomikoen batezbestekoan, zabaldu egiten da adinak aurrera egin ahala, eta horrek zuzenean eragiten dio zahartzeari, ongizateari eta osasunari, genero-ikuspegitik begiratuta.

Kuantifikazioa: 53.089,95 (% 2,00)
Ordainketa kredituak: 53.089,95 (% 2,00)
Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeta.	(% 100,00)	
Ek.HO.12.2. Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.	Ek.12.2.2. Elkar-rekin Lanean foru programaren esparruan, gizarte bazterketan bizi diren edo egoera horretan egoteko arriskua duten emakumeak gizarteratzeko bideak lantzea, kontuan izanik aurre egin beharreko generoko egiturazko desberdintasunak.	(% 100,00)	